

# SUKALDE ETA JANTOKIKO BARNE-ARAUDIA

## Indice

XEDAPEN NAGUSI.....	2
SUKALDE ETA JANTOKI .....	2
MAHAIK.....	3
SUKALDEA ETA LABEA .....	5
SUKALDEKO TRESNAK .....	6
BAXERA, CRISTALERIA ETA MAHAI –TRESNAK.....	6
JANARI-EDARIAK.....	7
HOZKAILU ETA GANBARA-HOZKAILUE .....	7
BAXERA-GARBIGAILUA .....	8
KAFEGAILU ETA EHOZGAILUA .....	9
TELEBISTA, IRRATI ETA BESTELAKO ELEMENTU ELEKTRIKO.....	9
ZABOR-ONTZIA.....	10
UMEEN MERIENDAK.....	10

## XEDAPEN NAGUSI

*“Elkarte hau, gizon eta emakumez osatua dago, denak berdintasun osoan, eta bazkide guztiekiko errespetu osoa eskatzen da orokorrean. Ez da inolaz ere onartuko jarrera matxista, homofobo, sexista etab. Ezta beste inolako jarrera desagoki, borroka, desordena.... Hori guztiak bazkide eta bazkide ez direnen arteko harremana oztopatzen baitu eta errespetu gabeko jarrerak, zuzendaritza batzordean aztertuko dira eta behar izanez gero, zigor larri eta oso larriak jarriko dira.”*

## SUKALDE ETA JANTOKI

**1.1. Artikulua** Bazkideei dagokia jantokia eta jantokio zer guztiak erabiltzea eta haietaz baliatzea.

**1.2. Artikulua** 18 urtetik gorako famili nahitz banako bazkideei erreserbatuak dago sarrera. 18 urtetik beherakoak eta bazkide ez direnak bertan egotekotan adin nagusiko bazkide batek lagundurik eta haren begiradapean beharko du izan.

Gonbidatuak elkartearen diren artean bazkidea izango da haiek egiten dutenaren erantzule. Ez die utzi beharko gonbidatuei beren kabuz bertako gauzak, tresneria erabiltzen, ezta kontsumo-gaiak eskuratzen ere; bazkideak berak arduratu beharko du zer horiek guztiak prestatzeaz.

**1.3. Artikulua** Udal-ordenantzek zer egintzen duten kontutan harturik, bazkidea izango da taberna eta antzeko tokiak ixteko jarritako orduz geroztik gertatzen denaren erantzule. Bazkidearen ardura izango da, era berean, jarritako ordutik aurreraz zarata, musika, ahots eta auzokoentzako molestia sor lezakeen beste edozer ekiditea, eta baita elkarte inguruetan errespetu berari austearen ere.

**1.4. Artikulua** Adin txikikoek eta bazkide ez direnak debekatua dute sukalde eta biltegian egotea. Horien arduradun egin den bazkideak betearazi beharko du debeku hori.

**1.5. Artikulua** Bazkidearen erantzukizuna da elkarteko gauza guztiak behar bezala erabiltzea.

Hala, argiak behartzeko direnak bakarrik piztuko ditu, eta alferrik galtzen ez utzi, bazkideari berari dakarkiate-eta galera luzarora. Berdin-Berdin joka bedi telebista, gasam ura, eta.ekin.

**1.6. Artikulua** Barne-araudi honetan ematen diren erauak ez betetzea hutsegite larritzak joko da, eta jantokia erabiltzeko eskubidea galtzea ekar lezake; eta baita elkarte bera erabiltzekoa ere. Erabaki horiek hartzea elkarte honetako BATZORDE ZUZENDARIARI dagokio, alde aurretik jantokiaz arduratzen den batzordeari iritzia eskatu odoren.

**1.7. Artikulua** Debekatua dago edozein animalia barnera sartzea, ezinduak edo itsuak laguntzeko animaliak izan ezik.

## **MAHAIK**

**2.1. Artikulua** Mahaia alde aurretik erreserbatu behar da jantokiko erreserba-oholean adieraziz.

Erreserba hori egiterakoan zehaz-mehatz adierazi beharko dira honako xehetasunok:

- Eskatzen duen/duten bazkidearen/bazkideen izena eta zenbakia.
- Zenbat mahi-lagun izango diren.
- Eguna eta zer ordutan hasteko dan.
- Zebat mahi erabiliko diren.
- Zer tresna erabiliko diren. Labe, parrila, edota bestelako tresna berezirik.

**2.2. Artikulua** Ezingo ditu bazkide batek bi erreserba edo gehiago eduki oholtzan jarriak.

Bigarren erreserba bat egin ahal izateko, lehendik eskatua zuena gauzatuta beharko du eduki.

Arrazoi bereziren batengatik-edo, bazkide baten bi erreserba beharko balitu, hartarako baimena eskatu beharko lioke jantokiaz arduratzen den batzordeari.

**2.3. Artikulua** 18 urtetik gorako bazkide bakoitzeko mahai baten (6 lagunetik 10 lagunera bitartekoa) erreserba egin daiteke gehienez ere.

Aldi bakar batean 3 mahai baino gehiago hartu nahi izanez gero (3 bazkide gutxienez), jantokiaren ardura duen batzordearengandik dagokion baimena eskuratu beharko da.

Mahai erdia ere har daiteke (4 pertsonarentzat, esate baterako)

**2.4. Artikulua** Jantokia guztiz beterik dagoela-eta handik kanpo ere mahiak jarri nahi izanez gero, elkarteko iharduketa orokorrak bukatzeko ordutegiaren baitan egono da hori, eta horretarako ere jantokiko batzordearen baimena eskuratu beharko da.

**2.5. Artikulua** Ezin izango da mahai bakar bat ere lekuz aldatu, nahiz eta bazkal-afaldarrak erosoago egon daitezten, mahai bat edo beste bata besteari lor dakizkiokeen.

**2.6. Arttikulua** Beha-beharrezko da mahai-zapi edo zamaua erabiltzea, oihalezko nahiz paperezkoa, estetikak hala agintzen duelako, batetik, eta bestetik, mahai-gaina hobeki zaintzeko.

**2.7. Artikulua** Erabilitakoan, mahaia jaso egin behar da eta garbi utzi. Mahaia erabili duen bazkidearen ardura da mahai hori behar bezala erabiltzea eta garbitzea. Era berean, bazkidea bera izango mahiari eragindako kalteen erantzule.

**2.8. Artikulua** Egindako mahai-erreserba erreserba horretan bertan adierazitako ordua baino ordu erdi lehengo arte errespetatuko da. Behin ordu hori pasatuz gero, zeinnahi bazkidek erabili ahal izango du mahaia.

Mahai-erreserba egin eta ez erabiltzea, horretarako justifikaziorik gabe bederen, hutsegite arintzat hartuko da; behin eta berriro gertatuko balitz, hutsegite larritzat.

**2.9. Artikulua** Mahaien okupazioari dagokionean, lehenetsuna, elkartean dagoen erreserba-panelean apuntatuta dagoenak izango du, beti ere, bazkari eta afariak lehenetsiko direlarik.

**2.10. Artikulua** Mahaiak eta aulkiak, aurrez ezarritako ordenan jarriak daude eta ez dira bakoitzaren borondatearen arabera mugituko. Salbuespen bezala, dauden mahaikideen erosotasunerako baldin bada, elkartu ahal izango dira, beti ere, amaitzean, aurrez zeuden bezala uzteko konpromezuarekin. Debekaturik dago aulki eta mahaiak gune gastronomikotik kanpo ateratzea.

## **SUKALDEA ETA LABEA**

**3.1. Artikulua** 18 urtetik gorago famili bazkide eta banako bazkideek beste inork ez ditzake erabil sukalde eta labeak.

Bazkide ez direnek sukalde nahiz labeak erabiltzekotan bazkide laguntzailearen begiradapean beharko dute egin.

**3.2. Artikulua** Behar-beharrezkoa da estraktorea erabiltzea sukaldelanean aritzerakoan kerik edo kiratsik sortuz gero.

Bazkideek arreta berezia izan beharko du estraktorea itzaltzen erabiltzeko premiarik ez dagoenean.

**3.3. Artikulua** Sukaldea edo labe erabiltzkoan, bazkidearen ardura izango da gasaren giltza ixtea.

**3.4. Artikulua** Sukalde-gainek eta sukaldeko mahaiak jasota eta garbi geratu behar dute. Baita, halaber, mikrouhinezko labeak ere erabili ondoren.

## **SUKALDEKO TRESNAK**

- 4.1. Artikulua** Ezin izango da elkartetik kampa inolako tresnarik atera, eta sukaldeko bateria, ontzi, mahai-tresna edo beirazko ontzirik ere.
- 4.2. Artikulua** Tresna guztiok erabilitakoan, dagokien lekuan ipiniko dira gero garbitu ahal izateko.
- 4.3. Artikulua** Era berean. mahai-zapi edo zamauak eta serbiletak ere jaso eta dagokien lekuan ipini beharko dira, ondoren garbitu ahal izateko.
- 4.4. Artikulua** Badira zenbait tresna, erabili ondoren, bazkideak berak garbitu beharrekoak, hala nola, irabiagailu, aizto, ohol, guraize, bitsadera, burrunzali,... Amankomunean erabiltzeko tresnak direnez gero, prest egon behar dute ondorengo datoren bazkideak erabili ahal izateko.

## **BAXERA, CRISTALERIA ETA MAHAI -TRESNAK**

- 5.1. Artikulua** Erabilitakoan jaso egin beharko dira eta dagokien tokian ipini gero garbitu ahal izateko.
- 5.2. Artikulua** Bazkideak arduratu beharko du baxeran nahiz kristalerian janari-hondarrik egon ez dadin garbitzeko jasotzen direnean.
- 5.3. Artikulua** Mahaia jasotzerakoan janari-hondarrak hartarako jarritako zabor-ontzian utzi beharko dira.
- 5.4. Artikulua** Bazkidea izango da baxera, kristaleria, mahai-tresneria, zapi nahiz serbiletetan gerta litzekeen hautsi, urratu eta kalteen erantzule.
- 5.5. Artikulua** Elkartea bazkide guztiena da eta ondorioz, gure etxea balitz bezala zaindu behar dugu. Saihetsezina da batzuetan erabileraren ondorioz baso edo plater bat haustea baina ez da plater, baso edo ontzien haustura sor dezakeen

jarrera desegokirik onartuko eta zuzendaritza batzordeak zigortu ahal izango du”.

## **JANARI-EDARIAK**

- 6.1. Artikulua** Bazkide ez direnek eta 18 urtetik beherako bazkideek guztiz debekatua dute apaltegietatik edari nahiz kontsumorako gaiak hartzera. Egiteko hori edari nahiz kontsumo-gai horiez arduratzen den bazkidearena izango da.
- 6.2. Artikulua** Bazkidearen ardua izango da bateko eta besteko gai eta jantokiko elementuak kontrolatzea, gero zerrenda egin eta ordain-agiria egin ahal izateko.
- 6.3. Artikulua** Bazkidearen ardua izango da ontzi-hutsak dagokien tokian uztea eta haien ordezkioak jartzea.
- 6.4. Artukulua** Behar-beharrezkoa da ordain-agiria betetzea kontsumitutako gaiak eta erabilitako elementuan zehaztuz. Batzuen eta besteen prezioak haibat zerrendatan adierazirik egongo dira jantokian.
- 6.5. Artikulua** Ordain-agiriak behar-bezala idatzirik egon beharko du, letra eta zenbaki argi eta irakurgarri, ahal dela zirriborrorik egin gabe. Era berean, adierazi beharko dira bazkidearen izena, zenbakia eta kontsumoa egindako eguna.
- 6.6. Artikulua** Ordain-agiria eta ordainketa, biak, hartarako jarritako buzoian utzi beharko dira.
- Ordain-agiria berehala ordaindu beharko da eta ezin izango da luzatu.
- 6.7. Artikulua** Biltegia biltegezainak bakarrik erabili hal izango du.

## **HOZKAILU ETA GANBARA-HOZKAILUE**

- 7.1. Artikulua** 18 urtetik gorako famili nahiz banako bazkideek bakarrik erabili ahal izango dituzte.

**7.2. Artikulua** Hoztailuetan ezin izango dira gorde dela usaingatik, dela beroagatik, edola beste edozergatik hozkailuak berak nahiz hozkailuetan jastoka beste janariak honda ditzaketen janariak. Jantokiaz arduratzen den batzordeak erabakiko du janari horiek noiz zaborretaratu.

**7.3. Artikulua** Maneiatutako janariak edota kontsumitzeko gai galkorrek ezin izango dute hozkailuan 24 ordu baino gehiagoz egon, ezta duten iraupen-muga baino luzeago ere.

Jantokiaz arduratzen den batzordeak erabakiko du janari horiek noiz zaborretaratu.

**7.4. Artikulua** Ganbara-hozkailuetan besterik ezer ezin sartu denean batzordeak erabakiko du iraupen-mugaren arabera zein janari handik kendu.

**7.5. Artikulua** Izozkailuan ezin izango da izozterakoan izozkailua bera honda dezakeen inolako gauzarik sartu, hala nola botila eta isurkiak edukitzeko ontziak.

**7.6. Artikulua** Maneiatutako janari edo iraupen-muga jakineko janari orok paperen batean edota beste nolabaiteko euskarriren batean adierazirik eduki beharko du zein egunetan maneiatu edo ondua den.

Berdin-berdin aipatutako jaki horiek bazkidearentzat berarentzat nahiz beste edozein bazkiderentzat izan.

## **BAXERA-GARBIGAILUA**

**8.1. Artikulua** Bakideek bakarrik erabili ahal izango dute. Bertan sartzen diren elementuek ez dute inolako janari-arrastorik eduki behar, eta sartu aurretik uretan pasa behar dira.

**8.2. Artikulua** Karga ongi osatu arte ez martxan behar.



**8.3. Artikulua** Baxera-garbigailuak bere lana burututakoan bazkideak arduratu beharko du baxera, kristaleria eta mahai-tresnak dagokien tokian jartzen.

**8.4. Artikulua** Baxera-garbigailuan baxera, mahai-tresnak, kristaleria eta neurri txikiko amankomunean erabiltzeko tresnak bakarrik sartuko dira, hala nola, bitsadera, burruntzali, sukaldeko aizto, guraize, etab. Ez ordea neurri handiko sulkaldeko bateriarik: eltze, zartagin, etb.

## **KAFEGAILU ETA EHOAILUA**

**9.1. Artikulua** Bazkideek bakarrik erabili ahal izando dituzte. Bazkideen ardura izango da haien funtzionamendu ona, eta baita piztu eta itzaktzea ere.

**9.2. Artikulua** Bata nahiz bestea erabilitakoan, bazkideak garbitu egin beharko ditu kafe eta bestelako hondarrak. Baita, iragazki, gaineko eta lurringailuak ere.

**9.3. Artikulua** Lurringailuak garbitzea bazkidearen ardura izango da.  
Era berean, esne-ontzian esnerik geratuko balitz, hozkailuan gorde beharko da esnea hoztutakoan.

## **TELEBISTA, IRRATI ETA BESTELAKO ELEMENTU ELEKTRIKO**

**10.1. Artikulua** Bazkideek bakarrik maneiatu hala izango dituzten; baita beroriek piztu eta itzali ere.

**10.2. Artikulua** Elkarren arteko armonia onerako eta elkarri enbarazurik ez egiteko, momentu horretan jantokian daudenen arteko konpromiso bat beharko da tresna horiek erabiltzeko orduan.

**10.3 Artikulua** Trensa horien hotsa zaindu egin beharko da, une horretan jantokian dauden bazkideei nahiz auzoari zor zaion errespetua kontutan

- 10.4 Artikulua** Debebatua dago entzute aparailuak beste bazkide edo auzokoak molestatzen dituen bolumenean jartzea.
- 10.5 Artikulua** Debebatua dago beste bazkide edo auzokoak molestatzen dituen garraisi edo zarata ateratzea

## **ZABOR-ONTZIA**

- 11.1. Artikulua** Zaborra kanpora atera beharko da 23,00ak baino ehen, zabor-bilketako udal zerbitzuek eraman dezaten.
- Plastikozko poltsa itxi egin beharko une horretan, guztiz beteta ez badago ere.
- Poltsa hori bere lekutik kendutakoan, beste poltsa huts bat jarri beharko da haren ordeaz.
- 11.2. Artikulua** Zaborra kanpora ateratzea une jakin horretan jantokian daudekeen bazkide guztien ardura da.

## **UMEEN MERIENDAK**

- 12.1. Artikulua** Elkartearen sarreran, umeen meriendak egiteko lau mahaiez osatutako gunea dago. Erabili ahal izateko, erreserben panelean erreserbatu beharko dira, bazkariei dagokien epigrafean.
- 12.2. Artikulua** Umeen meriendak arratsaldeko 17:00-etatik 19:30-etara egin beharko dira, denbora honen barruan, erabilitako gunea garbi eta txukun utzi behar delarik.
- 12.3. Artikulua** Sarrerako pasilloak garbi eta trabarik gabe egon behar du, beste bazkideak pasa ahal izateko.
- 12.4. Artikulua** Mahai eta aulkiak, ez dira jolasteko, beraz, dagokien lekuan eta behar bezala zainduak izan behar dira.

- 12.5.Artikulua** Debekatuta dago elkarte barruan, kalteak eragin ditzaketen jostailu edo jokoekin jolastea, baloia, patinak edo bizikletak adibidez.
- 12.6.Artikulua** Mahai jokoak behar bezala zainduak, jasoak eta bere lekuan ezarriak izan behar dira beste hurrek ere jolasteko aukera izan dezaten.
- 12.7.Artikulua** Debekaturik dago hormetan edo sabaian edozein apaingarri, girnalda, globo etab. zintzilikatzea, elkarteko pareta eta hormak zikindu eta zartatu egiten baitituzte.
- 12.8. Artikulua** Aurreko puntu guzti hauek betetzearen ardura, meriendaren eskaera egin duen bazkideak izango du.